

Eskubide eta betebeharrak gaika: Arau hausteak eta zehapenak

22. artikulua Zehatzeko araubidea.

Lege honetan ezarritako obligazioak edo debekuak ez betetzea eta bertan ezarritako eskubideak ukatzea Euskadiko Osasun Antolamenduaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen eta gainerako legeria aplikagarrian aurreikusitakoaren arabera zehatuko da, alde batera utzi gabe izan daitezkeen erantzukizun zibil, penal, edo beste mailakoak eta, partikularki, alde batera utzi gabe, besteak beste, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen eta osasun zerbitzuetako langile estatutarioen Esparru Estatutuaren abenduaren 16ko 55/2003 Legearen arabera, lege honen aplikazio-eremuko gizarte- eta osasun-alorreko profesionalek izan dezaketen diziplinazko erantzukizuna.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Sistemaren osasun-prestazioen karteran zerbitzuak sartzea.

Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko Osasun Plana eguneratzearen esparruan eta osasun alorrean ardura gorena duen organoak proposatuta, sistemaren osasun-prestazioen karteran sartuko ditu lege honetako aurreikuspenak betetzeko beharrezko zerbitzu eta prestazioak, arreta berezia eskainiz osoko zainketa aringarriei 12. artikuluan aurreikusitako moduan, horretarako beharrezkoak diren baliabide finantzarioak, giza baliabideak eta baliabide materialak jarritz.

Bigarrena. Lege honetan ezarritakoaren betetze-mailari buruzko azterlana.

Osasun alorrean eskumena duen sailak, bi urtebeteko epean, azterlan bat egingo du lege honetan ezarritakoaren betetze-mailari buruz eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek hura dela eta erakusten duten gogobetetze-mailari buruz. Azterlana bi urtez behin eguneratuko da, lege honen aplikazioa eta eraginak erregulartasunez ebaluatu ahal izateko.

Hirugarrena. Legearen ezagutza sustatzea.

Osasun alorrean eskumena duen sailak sustatuko du euskal herritarrek lege honetan aurreikusitako eskubideak ezagutzea, baita arretaren aurretiazko plangintzarako jarritako tresnak erabiltzearen abantailak ere eta, partikularki, aurretiazko borondateen adierazpenak emateko aukera.

Laugarrena. Profesional sanitarioen prestakuntza zainketa aringarrietan.

Osasun eta hezkuntza alorretan eskumena duten sailek zaintza aringarriei buruzko prestakuntza bultzatu eta zainduko dute lege honen garapena bermatzeko.

Bosgarrena. Zainketa aringarriei buruzko ikerkuntza.

Ikerkuntza eta osasun alorretan eskumena duten sailek bizitzaren amaierako zainketa aringarrien alorreko ikerkuntza eta berrikuntza sustatuko dute, kalitate asistentziala hobetzeko tresna gisa, ekipoen ikuspegi integral eta integratu batekin.